

# Beñadin Dunate

Ez ziren alegiazkoak haren ehorts mezan entzun ditugun mintzaldiak. Solas guziak bihotzaren oihartzun ziren. Gure Beñadinez ez baitaiteke mintza bere hitza gezurrean finkatuz. Berezia baitzen gure gizona. Dena bizi, dena su ! Egun hautan entzun solasak honelakoak ziren: "Apeza zen... sinesten zuen eta... sinetsarazten".

Bere Jainkoaz betea, hartua! Bere aurpegi alai eta goxoarekin iduri zuen bertze mundutik eskapatua hango berriak hemen lurrean hedatzeko. Prediku arte- tik, aldareari buruz itzulirik, bere eskuaz erakusten zuen : HORI, BETI GUREKIN DEN HORI... JESUS, BERE MAITEA ! "Sekulan ez naiz bakarrik..." Hori ere gure apez maite honen errepiketarik !

Bai, berdingabea, aparta Beñadin! Gehiago fabrikatzen ez den gerla aitzineko materialez egina! (Alduden erran litaikeen bezala!) Predikuan ari zela ikustekoa zen: bere esku-besoan mugimenduaz, bere oihuez, orai isilduak diren lehengo Hazparneko misionestak oroitarazten zituen. Guk "misionesta" deitzen ginuen. Hitz bakar batean treukatu gabe, memoria paperrak sakristian utzirik, paperrik izan bazen segurik, uhar erauntsi baten pare, bere predikua botatzen zuen! Arimen zerbitzuko halako ezinegon batek hartua iduri zuen, bere autoarekin kilometroak milaka iretsiz. Presatua Jainkoaren erreinu hura zabal- tzeko lanean.

Bizkitartean bertze munduko egina iduri zuen gizon horren bizia, LASSERRE ze- naturrak ehorts egunean aitortu bezala, gaurkotasunez betea zen. Modernoa zen. Bere mezua esperantzaren mezua zelakotz. Abrekeria edo bederen bihur- rikeria beti alha diren mundu hontan, Beñadinek erakusten zuen, gaurko egunean ere, ez dela etsitzerik, gure inguruan ikus dezakegula ongia, goxo- tasuna, bihotz ona, haurraren esperan- tzazko irria!

Beñadin apezak, JAUREGI, Kanboko erretorak erran duenez, bere heriotzeaz bazituen gogoeta batzu idatziak. Zioen haren heriotzeak ez zuela deusik alda- tuko haren eta gurekilako har-emanetan. Ez ginuela gehiago ikusiko bainan, gure sahetsean, gurekin ibiltzen segituko zue- la... Hitz horiek argi azaltzen dute zendu zaukunaren nortasuna! Hoinbertze zerbitzu, mundu hontan zeno, eskaini duenak, bertze mundutik ere nahi segitu ZERBITZATZEN!

M.I.